



Tolosa osoa saltoki bihurtu da sanjoanetako azoka berezian

SARIAK ▶ Barazki, fruta eta postu onenak eta barietate handiena saritu dituzte

ARTISAUAK ▶ Plaza Berrian Euskal Herri osoko artisauak izan dira; eguraldi aparta izan da ▶ 6



Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen Trianguloan, karpa azpian jarritako postuetan begiratzen eta erosten. IMANOL GARCIA

IBARRA ▶

Gaur amaituko dira Gazte Festak

Bazkaria, goitiberak eta kontzertuak izango dira ▶ 3

VILLABONA ▶



IMANOL GARCIA

Omenaldi beroa Julen Zelaraini bere herrian

«Borroka jarraitzeko prest» agertu da omendua ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Oporretan, nora joaten gara? ▶ 4-5

SANJOANAK 2005
TOLOSAKO ZEZEN PLAZA
PLAZA DE TOROS DE
TOLOSA

ERAINAK JUNIO 25 ZALDI CARRERO ZEZENKETA FESTIVO DE REJONES EL SIERRO PREMIOS BOHORQUEZ SERGIO GALAN IVAN MAGRO	ERAINAK JUNIO 26 ZEZENKETA CORRIDA DE TOROS MUSEZ DEL CUVILLO PREMIOS JAVIER CONDE MORANTE PUEBLA "CAVETANO" MADRID SEÑOR DEL AÑO
ERAINAK JUNIO 24 ZEZEN ERREKORDYANIK I. LEHIAKETA I CONCURSO DE RECORTE LIBRE CON NOVILLOS-TOROS BERRIA - GUABARRAMA	

Informazioa eta erreserbak : 943 64 16 66 10:00 - 12:00 17:00 - 21:00
659 67 65 70

Abonoak berritzeko edota berriak egiteko Tolosako Zezen plazan ekainaren 7tik 9ra 11 etatik 14 etara eta 17 etatik 19 etara, Eta Donostiako Venta Curro (Avda. Madrid) ekainaren 10etik 11ra.

Zezenketen egunetan, 10:00etatik aurrera sarrerak salgai egongo dira plazan bertan.

ABONOAK SALGAI %10 MERKEAGO

SARRERAK SALGAI	
TOLOSA	SAN SEBASTIAN
Bar "Asteasuarra" 943 673 186	Bar "Antonio" 943 429 815 c/ Bergara
Café Bar "Frontón" 943 651 470	Bar "La Espiga" 943 421 423 c/ San Marcial
Asador "Orue" 943 651 911	
Bar "Cantabrico" 943 653 987	BAIONA Office de Turismo
Bar "66" 943 671 937	0033 559 460 146 Place des Basques

MINUTU ERDIAN ▶

Zinema
emanaldirik
gabe Leidorren

KULTURA ▶ Asteburu hau izan da zinemarik gabeko lehena Tolosan. Jakina da udan Leidor zinema berri-tzeko lanak hasiko direla eta urtebetez luzatuko direla obra horiek. Gaur bi ekitaldi izango dira bertan, eguerdian dantza ikasleen emaldia eta arratsaldean Tolosako Orfeoaren kontzertua. Zinemaren ardura duen enpresak ez du zinemarik programatu asteburu honetan eta hemendik aurrera ere ez duela programatu azaldu du. Bestalde, zinemazale talde bat ari da Leidor pantaila handiari agur ekitaldia antolatzen. Sanjoanek pasatu ondoren, ekaineko azken astean, programazio berezi bat antolatu nahian ari dira.

UZTURRETIK ▶ XABIER TELLERIA

Pluralismoa ulertzeko era singularra



Zenbat aldiz ez ote dugu entzun gure herri hau plurala dela. Burua gora eta beheara astintzen dugu gainera hori entzundakotan. Pernandoren egia den horren aurrean ameto egin beste erremediorik gabe.

Niri behintzat ze pentsa ematen dit letania hori erabiltzen dutenak beti betikoak izatea, eta gainera nolako maiztasunez eta zein egogoretan agertzen duten arrazoibidea.

Itxura batean pluraltasuna modu positiboan ulertu beharko genuke; modu sinplean esanda, gai baten inguruan ideia eta jarrera desberdinak izatea, eta horrekin elkarbizitzen jakitea. Beraz hori aurreratuta daramagu. Beste alderdi batzuetan nahiko nuke halako aniztasunik, euskaldunen abertzaletasuna balortzerakoan, esate baterako. Horietan ondo jorratua dute ideia bakarraren arrastoa.

Nago ni pluraltasunaren bandera maiz aire-ratzen dutenak ez daudela prexiko gizarte plural batek har lezakeen norabidea onartzeko prest. Eta hala, gizarte anitz honek noizbait erabakiko balu gehiengoz burujabetza nahi duela, ba ez txikito, zer herri hau plurala da, eta minoria bat ezin baita behartu gehiengo batek pluraltasunaren ondorioa den gauzate politiko demokratikoa onartzera. Alegia, pluraltasunarekin ahoa betetzen dute, baina singular-tasun monolitikoa ondo segurtatua ikusten dutelako.

Derrigorrean eta suertez plurala den gure gizartearentzat, uztarri ikusten dute hauek pluraltasuna; euskaldunok lepotik ondo heldu eta joan-etorri bakarreko beren bidetik eramateko. Gehiago da. Ez dute pluraltasuna aldarrikatzen beren ametsetako nazioarentzat, beren kideak askeago eta anitzago izateko. Haiek, beraien zorionerako, ez dira pluralak. Eta ondo zaintzen dituzte mugak pluraltasuna kutsa ez dituzan. Pluraltasun ezak ematen die indarra, gure pluraltasunak ahultzen gaituen neurri berean.

BITXIA ▶

Tolosako euskara famatua. Australian eskal familia batean jaio eta Euskal Herrira etorri zen Amaia Urberuaga. Berastegin bizitu zen tarte batean. Hona hemen maiatzaren 29ko Argia aldizkarian kontatutakoa: «Tolosan, azkenean erderaz egiten nuen beti. Egun batean nahi nituen zapatila zuri batzuk erosi. Joan dendarra eta esan nion gizonari: 'Mesedez, emango dizkidazu berrogeiko zapatila zuri batzuk?' Eta, buelta eman ondoren, han ikusten nuen begira zebilela kaxa guztie; handik ez dakit zenbat minutura buelta eman zuten eta esan zidan marka hori ez zeukala. Erdaraz esan zuten: 'No tengo yo esa marca'. 'Si no te he pedido ninguna marca', esan nion; 'lo que te he pedido son unas playeras blancas del 40'. 'Haber dicho, mujer', berak ostera ere! Horrelakoak, asko!».

IRUDI ZAHARRA ▶

'SAN JOAN ESTROPADAK'



Batel banderarekin 1965ean

J.Saizar ▶ Batel estropadak berrindartu egin diren honetan, 1965eko argazki zahar aukeratu dugu sail honetarako. Urte hartan Ibarrek irabazi zuen eta Jesus Ozaita patroia eta taldeko *madrina* banderarekin Tolosako udaletxetik ateratzen ageri dira, jendetzaren artean. 'SANJOANETAKO ESTROPADAK' LIBURUA

IRITZIA ▶ MANUEL EGIGUREN (BOLIVIAKO BENI-KO GOTZAIN GOIATZTARRA)

Bolivia: iritsi ote da zure ordua?

Ez difamatu Bolivia. Munduko txoko gehienetan Bolivia non dagoen ere ez dakite. Baina aste hauetan informatibo guztietan Bolivia lehenengo aldiz albiste bihurtu zaigu. Mina ematen dit Boliviak. Bakean bizi denean, berarentzat ez dago inon ere gorespenik. Baina zalantzan eta erdi burruka dabilenean har hortxe danok galdezka: 'Zer dabilta Bolivian? Beti burruka? Beti arazoan? Blokeo eta greba non-nahi?'

Boliviak fama txarra daukala atzerrian? Baina ba ote dakite herri zoragarri honen historia? Bate ote dakite garai batean Boliviak Potosiko zilararekin Europa guztia aberastu zuela? Ba ote dakite pasatu den gizaldian Ipar Amerika Boliviako estainu guztieren jabe bihurtu zela tratu lotsagarriak eginez?

Boliva ezagutzeko

Esan dudana, nola ikusten dudan Bolivia orain-txe, pasa direnak pasatu eta? Baketsu samar... baina ez zeharo bakean. Laino beltzek ilundu lezakete bihar edo etzi Boliviako zeru urdina. Zergatik? Boliviak aspalditik arazo zorrotza dauka: gosea, pobrezia. Nondik datorkio pobrezia hori? Betiko jaun eta jauntxoak herriaren jabe izan dira. Eta orain ere halaxe izan nahi dute. Baina nekazari, meatzari eta indigenek gero eta indar handiagoa daukate. Eta Boliviara buelta osoa eman nahi diote. Ehundik hirurogei eta zazpi pertsonak indigenak dira. Eurek ondo dakite beti zapaldua, baztertuta bizi izatea zer den. Baina denak elkartu dira eta ez dira inoiz inoren aurrean makurtuko.

Gurea dena guretzat

Orain urte gutxi Bolivian gas-zulo ikaragarriak aurkitu ziren. Gonzalo Sanchez de Losada, orduko lehendakariak, kontrato lotsagarria egin zuten

petroleo enpresekin. Boliviaren kontra zihono kontratua, noski. Indigenek, meatzariak eta nekazariak aurretik inoiz ikusi gabeko manifestazioa egin eta gero, Gonik ihes egin behar izan zuten handik.

Geroztik gasaren nazionalizazioa eskatzen dute denek. 'Gasa gurea da eta guretzat behar du', diote dardarka. Petroleo enpresek, sega kirtena euren eskuetan daukatelako, ezin daitekeen negoziua egin nahi dute; eta hortxe dabilta keiruka 'Boliviatik bagoaz' esanez. Gobernua ere hortxe dabil zalantzan. Boliviak, nahi eta nahi ez, enpresak zeharo beharreko ditu. Bestela gasa hor geldituko litzateke lur azpian. Enpresek ere Bolivian etorkizun ezin hobea ikusten dute. Gas arazoa askatu ezinezko korapilo bihurtu zaigu. Askatuko ote dugu korapilo hori? Ba hotxe dago Boliviaren etorkizuna.

Bolivian politikoez latsa galdu dute eta, batez ere, herria hondatu. Indigenek, meatzariak eta nekazariak euren garaia heldu dela diote. Eta Bolivia berri nahi dute, sustraitik hasita beste Bolivia. Bolivia berria altxa, armatu nahi dute. Eta horretarako oihuka *Constituyente* eskatzen dute. Orain daukagun Konstituzioa jauntxoek egin zuten euren probetxurako bakarrik. Konstituzio berria behar dugu, denok egina eta denontzat. Heldu da garaia denok pare-parean bizitzen hasteko.

GASA

«Gasaren nazionalizazioa eskatzen dute denek. 'Gasa gurea da eta guretzat behar du', diote dardarka. Petroleo enpresek, sega kirtena euren eskuetan daukatelako, ezin daitekeen negoziua egin nahi dute»

IBARRA ▶ JAIK

Gaur dute azken eguna Gazte Festek

I. Terradillos ▶ Adin guztiei zuzendutako eguna izan zen atzo, Gazte Festetan. Goizean altxorren bila ederki igaro zuten gaztetxoek, eta arratsaldean, mus, tortillada, pailazoak, dantza, futbola, eta musika izan ziren besteak beste. Gaur izango da jaietako azken eguna. Xepan gazte bazkaria egingo dute (Atarin txartelak 5 eurotan), eta ondoren goitibera jaietsiera eta *playback* izango dira. Gauean, 21:30ean Sioux eta Mazar taldeek alaituko dute giroa Gaztetxean. I. TERRADILLOS



VILLABONA ▶ EUSKAL PRESOK

«Datorren astetik aurrera borrokan jarraitzeko prest»

Julen Zelaraini ongietorri ekitaldia egin zioten atzo laurehun bat lagunek

IMANOL GARCIA

Julen Zelaraini billabonatarriari ongi etorri ekitaldia egin zioten atzo, herriko Berdura plazan. 400 lagun inguru izan ziren Zelaraini beren berotasuna eskaintzen, hiru urte eta zazpi hilabete Soto del Realen preso eman ondoren. Aste honetan atera da espetxetik fidantzapean. «Datorren astetik aurrera borrokan jarraitzeko prest nago», azaldu zuen billabonatarriak eta omenaldian jasotako txapela hartuta hiru eskaintza egin zituen: «Burkide guztiei, espetxean jaso dudana babesa guztiagatik; ezker

abertzaleko egitura guztian dauden pertsona guztiei, egin duten isileko lanagatik eta familiari, bereziki nire seme eta amazeari».

Ekitaldia txalapartariekin hasi zen eta ondoren, Julen Zelarainen aurkezpena egin ondoren, preso politikoko ohia ohol-tza gainera igo zen jendearen txalo artean. Dantzariak agurra egin zioten eta aurrera egin zuen ongietorri ekitaldiak. Hainbat taldek orroigarri bat eman zioten. Antolatzaileek, espetxeetan dauden beste billabonatarriak gogoratu zituzten eta baita «dispertsioaren ondorioz larri dagoen» Irantzu Abad.

Ekitaldia egin eta gero afaltzera joan ziren Aburuza sagardotegira, izena eman zuten 200 bat lagunek.



Julen Zelarain, ohol-tza gainean, dantzarien agurra jasotzen. I. GARCIA

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Tolosa erdialdean 126 m2. Kanpoaldera. Garajearekin. Oso egoera onean. 649 25 40 80.

ALOKAGAI

Jaca. Hiru logelako etxebizitza alokatzen da uztailan. 635 750293.

LANA

Neska. Neska bat eskaintzen da udan lan egiteko. 696 53 22 43.
Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Agurrak. Paperezko egunkarian azaltzeaz gain, zuek jarritako agurrik webgunean ere ikus daitezke, egun batean baino gehiagotan gainera. Horrela kanpoan eta urrutiti bizi diren lagunek eta senitartekoek ere ikus dezakete zuek jarritako urtebetetze, eztei edo bestelako argazkia.

Parte-hartzean eta talde-lanean oinarritutako metodologia

ELHUYAR
Aholkularitza

- Euskara-planak enpresa eta erakundeetan
- Esparrurik landutako euskara-planak udalerrietan: lan-mundua, aisialdia, merkataritza...
- Gogoetak, plan estrategikoak eta erakundeen antolamendua hobetzeko prozesuak

www.elhuyar aholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com
Tel. 943 372052 (Usurbil) 94 4668816 (Durango)

ZIZURKIL ▶

Sega txapelketako kanporaketan hasiera gaur

ERREDAKZIOA

Gaur izango da Zizurkilen Gipuzkoako Sega Txapelketako lehen finalerdietako kanporaketa. 17:30ean hasiko da, Zaldubasariaren azpiko berlarian.

Bixente Mitxelena, Jexux Mari Goenaga eta Andoni Goikoetxea ariko dira lehian. Hogeita hamar minutuko lana egin beharko dute eta kilo gehien metatzen duten lehen bi segalariak sailkatuko dira uztailaren 24an Larraitzen izango den finalerako.

Bestalde, Txapelketako bigarren finalerdiak ekainaren 26an jokatuko dituzte Orendainen 12:00etan. Kanporaketa horretan, Mikel Aranalde, Juan Manuel Erasun, Jexux Mari Ormaetxea *Urki* eta Andoni Zuriarrain ariko dira nor baino nor.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzarano autobus.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

BIDAIAK ▶

Mundua adina aukera

Uda hurbiltzen doan heinean, jendeak porrak non pasako dituen erabakitzen doa: Turkia, Mexiko, Guatemala, Kuba, Malaga, Costa Rica, Grezia, Kenia...



Guatemala, Costa Rica eta Mexiko dira aukera daitzekoen oporretarako lurraldeetako batzuk. >>>

IRIAGO ASEINAK

Udako oporraldiak gero eta gertuago dira eta eguzkiak goxoz jotzen duen egun hauetan, bidia agentziak lana lepo dabilza. Nere joan erabakitzenekoan, edonori daitzeko zailtzak burura, mendia ala hondartza hautatu, atzerria jo ala ez, umeekin nola moldatu, eta abar. Zerbait gauza argitu dizkiote IZTZIARI Eroski Bidaiak agentzian, baina oporrak igarotzeko makina bat aukera dagoenez, irakurleak bere aldeetik jarri beharko du proposatu dizaguten lekuetako bat hautatzeko.

Aurtengo udak, dena den, badu berotasunak aurrekoekin alderatuak gero, izan ere, bidia agentzia handiek deskontuak eskaintzen dituzte, epe handiaren beren erreserbak egiten dituztenentzat. «Horregatik aurtun jendea inoiz baino lehenago ari da bere oporrak erreserbatzen» dio Eroski Bidaiak-eko Itziar Gilek. Urtero jendeak azken eskaintzarate jarraitzen du, baina aurtun arazoak izango dira azken eguneko bidia horiek lortu ahal izateko. Agentzia handiek, ehuneko 8tik 20ra bitarteko deskontuak egin dituzte maiatzaren 31 baino lehen, bere erreserba egin dutenentzat, eta horregatik inoiz baino bidia gehiago saldu dira egunerrate.

Aukeratan den oporretako lekua, joan behar duen jendearen araberakoa izaten da. Seme-alabekin bidaiatu behar bada, gurasoek nahiko garbi izaten dute umeek zer nahago izaten duten. Kostaldere joatea izaten da errazena kasu horietan. Baisarak, hegaztinez ordu batera, eta Malaga, Donostiatik hegaztinez egiteko aukerarekin, dira gurasoentzat gustukoena. Horrez gain, Disney Land eta Port Aventura bezalako lekuek ere jende ugari erakartzen dute, umeek bereziki gogoko dituztelako. «Garbi da, uda inguruan mendira joatea gutxiengo baten aukera dela, gehiengoak kostaldere joatea erabakitzen baitu», dio Itziar Gilek. Ostaturarekin ere arazoak izan daitezke hiru seme-alaba edukiz gero. Logelak, gehienez 4 pertsonentzat izaten dira, eta honek suitzen olatu baxerara behar izan ditu gurasoak, suposatzen duen gastu altuarekin.

Bilketek dagoeneko, askoz aukera zabala egin dute hauek. Tunisia, Egipto, Kuba, Kroazia, Grezia, Italia, Praga, Turkia, Errusia, Eskandinavia,



ITZIAR GIL
EROSKI BIDAIAK

«Aurtun arazoak izango dira azken momentuko eskaintzak lortzeko, erreserba inoiz baino aurreratua da»

«Uda aldean oso jende gutxi nahi izaten du mendira joan, kostalde ingururak aukeratzeko dituzte gehiago»

Brasil, Costa Rica eta beste zenbait lurralde dira bikote gazteek beren oporretarako aukeratzeko dituztenak. «Lehen beti izaten zen jende asko bitartean zuten oporretarako lekuren bat, uda batean modan jarri eta jende mordoak aukeratzeko zuzena. Gaur egun ez da horrelakorik ematen, aukera zabalegia da, eta leku ugariarako eskaintzak daudenez jendearen erabakiak askoz batusoak izaten dira», dio Eroski Nekane Lazkanok.

Uda amaietan ezte bidaiak dira gehien eskatzen direnak. Irailtik azarorako egunak aukeratzeko dituzte ezkonberriek, kasu gehienetan, atzerria jo-



Nafarroa etorbideko Eroski Bidaiak, lan asko egiten ari da azken egunetan, udaren hurbiltasuna dela eta. >>>

tzeko. Kenia eta Tanzania bezalako lurraldeak aukeratzeko dituzte batzuk, Costa Rica beste batzuk, eta gehiengo batek Patagonia. Azken honek zuzenbarrizko arrakasta du ezkonberrien artean. Honez gain Kuba ere oso toki bisatuta da, bai ezkonberrien aldeetik eta baita gazte eta bestelakoekin aldeetik.

Eskandinavia, Mexiko eta Peru dira gertuen zuzenbarrizko aukerak. Jende gehiegi izaten ez duten arren, urtero urtero jendeak eskatzen dituztenak.

Familiarekin edo bikotearekin bidaiatzeaz gain, gazteek

lagun artean bidaiatzea ere gustuko izaten dute, baina kasu hauetan behar beharrezkoa izaten da bidaiaren prezioa nahiko baxua izatea. Izar Gileen esanetan «Salou eta Mallorca dira merkeak gasteentzat, baina urrutingo joan nahi izanez gero Tunisia, Egipto eta Turkia bezalako lurraldeak ere aukera merkeak eskaintzen dituzte.

Gaur egun arrakasta guztiaren dute. Estatu Batuetako, Australiako eta Europako lurraldeak dira.

Umeekin arazoak

Hegazkin konpainiek azken asteetan jakinarazi dutenaren arabera, 14 urtez beherako

umeek ezingo dute familia liburuetan bidaiatu, beharrezkoa izango dute NANA edota pasaportea beren izenen edukitzea. Erabakia hau legezkoa den ala ez garbi ez dagoen arren, bidia agentziek pasaportea egitea gomendatzen dute, dagoeneko arazoak izan baitira aeroportuetan gai honen inguruan. Eta umeek bidia aukeratzekoan duten erabaki indarra kontuan izanik, ezin hauek lurrean utzi.

Garbi geratu da, uda honetan, gustu eta patrika guztiengatik aukerak daudela. Nahiko lan izango dupe beraz gure oporran non igaroko ditugun erabakitzeak.

Eroski Bidaiak-eko Itziar Gilek dioenez «umeen hitzak idazten handia du gurasoengan, nora joan aukeratzekoan, umeek bereziki zuzenbarrizko erabakitzeko dute, eta gurasoek uste baino kasu gehiago egiten diote hauek esandakoari.

hitza
TOKI APROPOSU
BAGARTZEKO
ESKUALDEKO
PIAZA
661 678 818

ELEKTRIZITATEA
Euskal - Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80

Bidai Agentzia bidaide
Nerea Goikoetxea Gazpio
Erriobeo, 6 - beheko
20150 VILLABONA
Telefonoa 943 69 25 93 • Faxoa 943 69 25 10
E-mail: bidaide@gruposercom.com
enrrope bidaiak, S.L.U • C.I.E. 2218

Berriz

1007
Iraultza da!
Bere zain gaude
1007
TOLOSA MOTOR, S.A.
San Esteban auzoa, 14-A • TOLOSA
Tel.: 943 650337 Faxa: 943 652938
e-maila.: tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Ekainean

30
Egun paregabe
EROSKI bidaiak
merretz daite

AZOKA ▶

Azoka eguzkitsua eta produktu asko salmentan

Lehen gereziak jarri ziren salgai eta perretxiko zerrenda handia izan zen

PABLO ALBERDI

Oso egun polita bizi genuen atzo Tolosako sanjoanetako azoka berezian. Oso giro polita eta produktu zerrenda izugarria izan zen. Barazki kopuru handia, fruta zerrenda pixkanaka gora dihoa, perretxiko eskaintza oso zabala da oraindik, eta apaingarriko landareen kopurua ere oso handia izan zen. Baratzerako espezieen salmentak ere bere onean jarraitu zuten, eta animalien eskaintza oso zabala izan zen.

Nobedade bezela lehenengo gereziak aipatu ditzaizkegu; 2 eurotan saldu ziren. Eta perretxiko zerrenda ere ez zen makala izan. Onddo asko, ziza dexente, ziza horiak eta gibelurdinak.

PREZIOAK ▶

Gaia	merk.	gares.
Krabelina	4,80	-
Geranio	1,90	-
Siempreviva	6,00	-
Gerbera	12,00	-
Ontto	24,00	25,00
Ziza	15,00	34,00
Ziza horia	20,00	-
Ahatea	2,50	-
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Tomatea	3,00	4,50
Ilarrak	7,00	9,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,00	4,00
Porru	1,00	3,00
Arraultzak	1,30	2,10
Ardi gazta	12,00	14,00
Behi gazta	7,00	7,50
Inkaurra	4,00	6,00
Sagarra	2,00	3,00

SANJOANETAKO AZOKA BEREZIA ▶

Herri guztia azoka bihurtuta, izan da zer ikusi eta zer erosi

Sariak barazki eta fruta onenei, postu politenari eta barietate handienari

IMANOL GARCIA

Eguraldi ona lagun —baten batek beroegi egin zuela ere esango zuen—, sanjoanetako azoka berezia egin zen atzo. Izan zen zer ikusi eta zer erosi ere. Larunbateroko azokan egon ohi direnez gain beste hainbat postu jarri ziren Trianguloan, karpa baten azpian. Berezitasun bat ere izan zen plaza horretan, Mahala etxekek gazta nola egiten duten erakutsi baitzuten. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK ere parte hartu zuen azokan bere postua jarritz.

Atzoko azokako beste berezitasun bat plaza Berrian jarritako artisauen txokoa izan zen. Eukal Herriko leku askotatik etorritako artisauak beren lanak erakutsi eta saldu zituzten: zeramika, lore lehorrak, poltsak, pitxiak...

Zerkausan egin azokaren sari banaketa ekitaldia. Aipatzekoa da, Tolomendiko epaimahaikideek azaldutakoaren arabera, erakutsitako barazkien maila ona. Baina, frutari dagokionez, ez zen izan maila alturik eta horregatik erabaki zuten hutsik uztea lehenengo saria.

Sarietara ohituta dauden bi emakume jaso zituzten ere atzokoan: Kaxi Izagirre (bere ahizpa Ana Marirekin jartzen du postua) eta Eugeni Agirretxe. Izagirretarrek atzokoarekin bederatzigarren saria dute lau urte eta erdian. Hain barazki onak izateko zein den sekretua galdetzean, bi ahizpek «lanaren saria» dela esaten dute: «Gustatu egiten zaigu baratzean aritzea eta lan asko egiten dugu. Asko maitatzen dugu zeregina eta lana txukun egitea gustatzen zaigu».



Sariak jaso zituztenak beren garaikurrekin eta udal ordezkariekin. I. GARCIA



Artisauak beren lanak erakutsi eta saldu zituzten Plaza Berrian. i.g.

Eugeni Agirretxek barazki eta lore sorta ederrak izaten ditu, eta gainera nekazaritza ekologikoan. «Niretzat nahi dudana bezeroentzat ere nahi dut eta horregatik egiten dugu ekologikoan».

Aipatzekoa da ere Errezilgo postua izandako saria. Epaimahaikideek egiten ari diren esfortzua saritu zuten: «Transformazioan ari da ahalegin handia egiten: pastelak, mermeladak, ontziratzak...».

SARITUAK ▶

Sanjoanetako azoka berezian saritutako postuak.

BARAZKI ONENA

1. saria. Kaxi eta Ana Mari Izagirre (Ibarra).
2. saria. Patxi Izagirre Montes (Ibarra).

POSTU POLITENA

1. saria. Pilar Unanue (Urrestila).
2. saria. Axun Aizeburu (Alkiza).

FRUTA ONENA

1. saria. Hutsik gelditu da.
2. saria. Joxe Zugasti (Ikaztegieta).

BARIETATE HANDIENA

1. saria. Eugeni Agirretxe (Berrobi).
2. saria. Errezilgo azoka.

UDA HONETAN JANTZI EZAZU
HITZAREN KAMISETA

SALGAI HITZAREN egoitzan eta
OSKI GAZTEA
Emeterio Arrese, 5 • Tel.: 943 65 56 21
TOLOSA

SANJOANAK ▶

San Joan jaietako hastapenekoak

Ekitaldi nagusiak datorren astean izango badira ere asteburu hau ekitaldiz oparoa izan da: 3x3, triala, batelak, musika...

ERREDAKZIOA

San Joan jaiak datorren astean hasiko badira ere, atzo eta gaur ekitaldi ugari izan eta izango dira motorrak berotzen hasteko. Horrela, sanjoanetako aparteko azoka, erraldoi, buruhandi eta dultzaineroen kalejira, Tolosaldeko Eskupilota Topaketako finalak eta 3x3 kale saskibaloia izan ziren goizean; azken honen kasuan, goizean gaztetxoak aritu ziren Foruen etorbidean saskibaloian jolasean, eta arratsaldean, berriz, gazteak izan ziren San Frantzisko ibiltokian jarritako saskibaloia pistetan jokatzeko aritu zirenak. Giro ederra sortu zen eta ikusmina piztu zuen kalean egindako kirol honek.

Arratsaldean, graffiti lehiaketarekin Trianguloan ari ziren bitartean, zezen-plazan trial erakustaldia izan zen ikusgai. Tolosako Ibilgailu Klasikoan XI. Nazioarteko Erakusketaren az-

ken ekitaldi gisa eta estreinako aldiz antolatu zuten erakustaldi hori. Lau txapeldun aritu ziren motor eta txirindu gainean era guztietako salto eta akrobaziak eginez: Iker Lezeta, Alberto Gomez, Miguel Angel Jimenez eta Carlos Ramos.

Gaurkoan ere izango da zertaz gozatua Tolosan, eta goizean goizetik, gainera. XXXII. Nazioarteko Xake Lehiaketa izango da Berdura Plazan Tolosako Xake elkarteak antolatuta. Ondoren, Harizpe elkarteak antolatuta Toka Lehiaketa egingo da San Frantziskon. Leidorren ikusgai izango den dantza emanaldiarekin batera batel estropaden sailkapen probak egingo dira. Eta arratsaldean, berriz, haur jaialdia xexen eta zalditxoekin, San Frantzisko ibiltokian egingo den bizikleta festa eta, gaurko egitaraua amaitzeko, Tolosako Orfeoia- ren emanaldiaz gozatzeko aukera izango da.

GAUR ▶

10:00. XXXII. Nazioarteko Xake Lehiaketa taldeka, XXIX. Enrique Pineda Memoriala, Berdura Plazan. Tolosako Xake Elkarteak antolatuta.

11:00. Toka Lehiaketa, San Frantziskon, Harizpe elkarteak antolatuta.

11:30. Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleen emanaldia, Leidorren.

12:00. Batel estropadak Oria ibaian (sailkapen probak).

16:30. Haur Jaialdia zezen-plazan: xexenak eta zalditxoak.

18:00. Bizikleta festa San Frantzisko ibiltokian. Ondoren, Txirindulari Criterium-a, Jose Manuel Ansorena IX. Memoriala, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta.

19:30. Tolosako Orfeoia- ren emanaldia, Leidorren.



Foruen etorbidean gaztetxoak aritu ziren saskibaloian. I.GARCIA



Txirinduekin ere plataformetara igoz mota guztietako saltoak eta akrobaziak egin zituzten. I.TERRADILLOS



Motorrak ederki maneiatzen dituztela ikusi ahal izan zen atzo. I.T.

iragarki laburrak ▶

Sukaldeko laguntzailea, zerbitzariak. Hurrengo deialdiak: herri erakundeak. Informa zaitez. 943 65 01 93 telefonon.
Gidariak. Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astean

35 ordu. Informatu. 943 65 01 93.
Suhiltzaileak. Hurrengo deialdiak: Gipuzkoa. 1.400 euro/hilean. Astean bi lanegun. Azken lanpostuak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Herri haurtzaindegiak. Honako

lanpostu hauek bete behar dituzte: haurtzainak, hezitzaileak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Administrari laguntzaileak. Plaza libreak udaletarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera,

8:00etatik 15:00etara. 943 65 01 93.
Laborategia. Plaza libre: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Peoiak, ofiziko langileak.

Lanpostu finkoak: igeltsuak, argiketariak, iturginak... eraikin publikoetan mantentze-lanetan aritzeko. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 65 01 93.



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko ekainaren 19a, igandea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

24

hotzena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. San Joan dantzen entsegu eta 20:00etan ikastolan.

Ibarra. Loatzo musika eskolan ikasturte bukaerako emanaldia bihar 19:00etan elizan.

Ibarra. III. Langostino Moto festarako izen-ematea zabalik. Euskadiko Kutxa: 3035 0141 84 1410023

Tolosa. Adinekoen Astea bukatzeko, 13:00etan bazkari berezia izango da. lurreamendi egoitza.

Tolosa. Odol bankoa Kultur Etxean izango da bihar 18:30etik 20:30era. Deia egiten zaie emaleei.

Tolosa. Udal Musika Eskolako metal eta egurra taldeak eta bandak bihar 20:15ean eskolan.

Tolosa. Gipuzkoako Segua Txapelketako kanporaketa. 17:30ean Zaldubaserran.

JAIAK

Ibarra. Gazte Festak: poteoa 12:00etan; gazte bazkaria Xeplan 14:30ean; goitibera jaitsiera 17:00etan; play-back-a Gaztebtxean 19:00etan eta kontzertua Sioux eta Captain Nemo taldeekin, 21:30ean.

Tolosa. 10:00etan xake jokoa Berdura plazan; 11:00etan toka lehiaketa San Frantziskon; 11:30ean udal dantza tailerraren ikuskizuna Leidorren; 12:00etan batel estropadak Orián; 16:30ean xexenak eta zalditxoak; 18:00etan bizikleta festa eta 19:30ean Tolosako Orfeoaren emanaldia Leidorren.

Tolosa. Sanjoanetako zezenketak zezen-plazan 24an, 25ean eta 26an: sarrerak salgai dira herriko Asteasuarra, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan. Informazioa: 943 64 16 66, 659 676570.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga 7. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.

Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. M.J. Iraola 10. 943 67 24 38.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Finalak, erabakita

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Atzo jokatu ziren HITZA Pilota Txapelketako azken finalerdiak; finalak igandean izango dira Tolosako Beotibar pilotalekuan

ERREDAKZIOA

Atzo jokatu ziren HITZA Pilota Txapelketako azken finalerdiak Adunan, Alegian eta Tolosan eta herenean, Albizturren. Azken fasera iritsi da beraz, txapelketa hau eta datorren igandean jokatuko dira txapelketako final guztiak, 09:30ean Tolosako Beotibar pilotalekuan.

Emaitzei begiratuz, ostiralean Albizturren, alebinetan, Matxinea-Arratibeak 16-11 irabazi zieten Apeztegia-Arizmendi eta Luzia-Manzisdorrek 16-9 Etxeberria-Arozeñari. Finala Matxinea-Arratibel (Beasain) eta Luzia-Manzisdorren (Antiguo) artean jokatu dute.

Atzo berriz, benjamin mailako finalerdiak Alegian jokatu



Alebinen lehen finalerdia Baliarraingo frontoian. J.SAIZAR

barrean Baliarrainen izan ziren, eskolako jaialdia zegoelako. Lehen partiduan Ontsal-

Elizalde 16-14 irabazi zieten Gil-Sagatibeltzari. Bigarren-ean, Altuna-Otamendik 16-10

irabazi zieten Ibartzabal-Tolosari. Finala Ontsal-Elizalde (Baztan) eta Altuna-Otamendik (Zazpi Iturri) jokatu dute.

Adunaren infantil mailako pilotariak aritu ziren. Sukia-Mendiñuetak 18-1 irabazi zieten Urbietari eta Ansotegizinkunegik 18-11 Otaegi-Iraolari. Finala Sukia-Mendiñuetak (Zazpi Iturri) eta Ansotegizinkunegik (Antiguo) jokatu dute.

Tolosan, aurreko berrikuntza izan den maila berezikok aritu ziren, profesioletara pasatzeko daudenak. Retegi-Arrutik 22-21 irabazi zieten Lasa-Appraizi eta Beloso-Oteizak 22-12 Apeztegia-Arraztoari. Finala Retegi erasundarrak eta Arruti usurbildarrak Beloso bidaniarra eta Oteiza zarauztarren aurka jokatu dute.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ane Gonzalez (Ibarra). Gaur 7 urte. Zorionak Aitor, aita eta amaren partetik.



ZORIONAK, KUKITO!
Aloña Mendizabal Salaberria. «28 urte». Muxu handi bat denon partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 beheka TOLOSA Udaletxeko bulegoa LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

MUNDU BAT HAMAIKA LEKU

18 bidaia txina karibe andaluzia mallorca kantabria

Ekainaren 19tik aurrera

Kupel guztiak bildu gero, autorako eguzkitokos jasoke-izuz opari.

berria

Agurruak: EROSKI bidaiak

berria